BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4768

EBAZPENA, 2011ko abuztuaren 30ekoa, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren zuzendariarena; Gradu-tituluen Ebaluazio Batzordeen kide batzuk kargutik kentzea eta Titulazioen Ebaluazio Batzordearen kideak izendatzea xedatzen duena.

Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren Estatutuetako 13.3.l) artikuluan xedatutakoaren arabera (abenduaren 28ko 349/2010 Dekretuak eraldatutako ekainaren 27ko 138/2006 Dekretuaren bidez onartutako estatutuak), Agentziako zuzendariari dagokio ebaluazio-batzordeetako kideak izendatzea, Adituen Batzordeak proposatu ondoren. Horixe dago aurreikusita, halaber, Euskal Unibertsitate Sistemaren gradu-tituluen ikasketa-planei buruzko aldez aurretiko txostena egiteko protokoloaren 1.2 puntuan (Unibasq-eko Administrazio Kontseiluak 2009ko azaroaren 2ko Erabakiaren bidez onartu zuen protokoloa, eta 2009ko abenduaren 4ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen Unibasq-eko zuzendariaren ebazpena, 2009ko azaroaren 5ekoa).

Halaber, egiaztatze-prozesu osoan jarraitu beharreko publizitate- eta gardentasun-printzipioak betetzeko, aipatutako protokoloaren 1.2 puntuak exijitzen du ebaluazio-batzordeen osaera Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean eta Unibasq-en web orrian argitaratzeko.

Horregatik, esleitu zaizkidan eskumenei jarraiki, eta aipatutako aurreikuspenak betetzeko,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Ondoren zehazten diren Ebaluazio Batzordeen kide hauek kargutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea:

1.– Zientzietako Batzordea.

Kideak:

Presidentea: Luis Vega González.

Batzordekideak: Julio Abalde, M.ª Carmen Arevalo Morales, María Luisa Calvo, Luis Angel Fernández Cuadrado, Manuel Prieto.

Idazkaria: Ana Rallo.

2.– Osasun-Zientzietako Batzordea.

Kideak:

Presidentea: María Dolores Boyano.

Batzordekideak: Pilar Gómez Serranillos, Tomás Hermenegildo González, Susana Gorbeña, Enrique Molinero, Gerardo Pisabarro.

Idazkaria: Ana González Pinto.

3.– Arkitektura eta Ingeniaritzako Batzordea.

Kideak:

Presidentea: Rafael Avilés.

Batzordekideak: Luis Basañez Villaluengo, Jaime Domínguez Abascal, Victor Echeverría Ecenarro, Emilio Eguía López, Arturo Romero.

Idazkaria: José Javier Dolado Cosin.

4.– Gizarte- eta Lege-Zientzietako Batzordea.

Kideak:

Presidentea: Concepción Medrano.

Batzordekideak: Javier Díaz Noci, Teresa González de la Fe, Aurelia Modrego, Patricio Pérez, José Luis San Fabian.

Idazkaria: Jon Arrieta.

5.– Arteak eta Giza-Zientzietako Batzordea.

Kideak:

Presidentea: Nicanor Ursua.

Batzordekideak: Andoni Barreña, M.ª Teresa Escohotado, Carmen Fernández Juncal, María Lozano, Manuel Redero.

Idazkaria: Dulce Ocón.

Bigarrena.– Adituen Batzordeak proposatuta, eta Unibasq-eko Administrazio Kontseiluak onartu ondoren, Titulazioen Ebaluazio-batzordeko kideak izendatzea:

1.– Titulazioak ebaluatzeko Batzordea.

Kideak:

Presidentea: Julio Abalde Alonso.

Batzordekideak: M.ª Carmen Arévalo Morales, Luis Basáñez Villaluenga, Bruno Camus Bergareche, Pilar Gómez-Serranillos Cuadrado, Arcadi Gual Sala, Patricio Pérez González, José Luis San Fabián Maroto, Cristina Sánchez López.

Idazkaria: Inmaculada Ortiz Uribe.

Hirugarrena.– Ebazpen honek egun honetatik bertatik aurrera izango ditu ondorioak. Hala badagokio, ebazpena ezagutzera emate aldera Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, baita Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren web orrian ere.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abuztuaren 30a.

Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziako zuzendaria,
JUAN ANDRÉS LEGARRETA FERNÁNDEZ.